

# ANTZERTI

ELISKEL-ANTZERTIAREN ILEROKOA



Tx:K:

## ATERAKO GERA!

Toribio Alzaga'k egintza bakarean idatzitako jostirudia

1'go. Zenbakia

1932-ILBELTZA

# AURKEZPENA.

Gaur lenengoz, irakurie maitea, ANTZERTI azaltzen zaizu. ANTZERTI bai, au da; Euskal-Antzertiaren aldizkingia. Txiki ta apal datorkizula egia da; baita ere ordea, asmo aundi ta uste onez ornitua. Guziak, euskera ta gure Eria, antzertiaren bidez, suspertzearen:

Asmo oriek bete al izango ditugun ala ez gure adiskidien eskuetan dago. Ez ba'diguzute laguntzarik ukatzen ez degu utsegingo ta gero ta geiago gaur sortu dan aldizkintxo auxe sendotzen ta edertzen aleginduko gera.

## ANTZERTI.

---

# ATERAKO GERA!

---

## BANAKETA.

---

1888'ko Lotazilaren 26'an Donosti'ko Antzoki zafean lenengo aldiz aurkeztu zanean:

### ANTZEZNOTIÑAK

---

### EGINTARIAK

---

<i>Anñon</i> . . . . .	Afegi jauna.
<i>Pelo Atraka</i> . . . . .	Luzuriaga »
<i>Joxe Pipax</i> . . . . .	Olazabal »
<i>On Jeolimo</i> . . . . .	Iribafen »
<i>Tanti (zelaoria)</i> . . . . .	Artola »
<i>Patxi (mutil koxko'ra)</i> . . . . .	N.

---

*Lenengo Oroilaria* . . Antonio Etxebefia jauna.

---

GETAERA DONOSTIAN.

---

---

# ATERAKO GERA!

---

---

TORIBIO ALZAGA'k

egintza bakarean idatzitako jostirudia eta 1888'garen urtian  
Euskal-itz Jostaldiak eraturako batzaldian lenengo saria irabazia.

\*\*\*\*\*

## EGINTZA BAKARA

---

*Iruditegiak sagardotegi bat aurkeztatzen du. Egintariaren es-  
kuitara barika bat; bertatik sagardoa saltzen da. Ingu-  
ruan upelak, barrikak, alkiluziak, sua egiteko afixa;  
kargakua, onila ta abar. Barikatik zintzilik krisalua, ta  
txoko batian eratzza. Saferako atia atzian, erdi aldian,  
irubat mala jexten dirala. Eskuiean, aurre aldian, pati-  
ñara ematen duen beste ate txiki bat.*

### LENENGO IRUDIA.

Anfon.

*(Ezkutazapia altxatzeakoan, Anfon, saferako atian kanpora  
izketan balego bezela. Gero aufferatzen da).*

**Auton.** —Aterako ote gera bada? Abek ixtiñuak oraingo lege  
befi txatxu abekin. Ezin gintezke ofela iñola ere mol-  
datu. Ez gera aterako!

Nola bada? Sagardua upelategira ekafi ta andik den-  
bora puska batera etofiko dira *zinta* traste batekin,  
eta, neurtu batera, neurtu bestera, lumeruak egin, pa-  
pela zikindu, ta... ofela asmatu oyek zenbat sagardo  
dagon barenen? Ori da, neri suguña neurtu, ta zer jan  
detan asmatzia bezela.

Okerena da befiz, beti sagardo jabien alde kontuak  
ateratzen dituztela; bai noski, nik baño obeto esku az-  
pitik ematen diyotelako. Oraingo jendiak dana bada-  
kitela uste dute, ta ezer ez dakite...

Orain, sagardua dan edo ez dan ezagutzera, *mues-  
trak* eraman-azitzen dizkigute zereko zeraren, zerien,

zirien.., zera, guazen, *klarinete kaniketakua*... edo dana dala. Ayek omen dakite... Beren bizi guztiyan ez zuten gero baso erdiren bat edango ere ta. Oyek guri erakutsi zer dan sagardo ona!

Obe luteke Peño Atraka'ri deituko baliyote; afeak obeto ezagutuko luke bai, ona edo txarfa dan, dozen erdi bat baso edan ezkeru.

(*Barika afeako kadiran exertzen da*).

## BIGAREN IRUDIA.

### Anion ta Peño Atraka.

*Atraka.* (*Atzeko atetik sartuaz*).

—Eup!

*Anton.* —(Emen da bera). Kaxo; Atraka. Zer degu?

*Atraka.* —Bageala.

*Anton.* Itxasora gabe?

*Atraka.* —Bo! Galerna madarikatu bat atera dik, eta lego-fian gelditu gaituk.

*Anton.* —Bejoiindaizutela; urtara ezin danian, sagardotara.

*Atraka.* —Askoz ere segurugo dek.

*Anton.* —Ez zekiat bada; urtan ez aiz beñere ito, baña....

*Atraka.* —Ik zer dakik?

*Anton.* —Mutl, ala uste nikan beñepin.

*Atraka.* —Norbaitek esango zikan da.

*Anton.* —Bai; nik buruan ala zeukat; ez aizela beñere urtan ito; baña, alakoren batian, sagardotan itoko aiz.

*Atraka.* —Ederki eman ere! Ez bazekiat bada nik yayo igari!

*Anton.* —Legoñian bai, legoñian.

*Atraka.* —Tira, tira; beriketa gutxi ta bete baso bat.

*Anton.* (*Basua garbituaz*).

—Zenbatgarrena?

*Atraka.* —Orain sartu nak, eta zenbatgarrena?

*Anton.* (*Betiaz*).

—Ez al dek lenokoik?

*Atraka.* —Ez gizona; lenokuak... danak edan nizkidan.

*Anton.* —Ez diat ori esaten. Galdetzen nikan lenokoik ez dekan zor.

*Atraka.* —Bai zera; aiantzaliak oso ondrarubak gaituk. Ez degunian—garbi esatia obe dek—ez diagu pagatzen; baña, degunian... (askotan ere ez )

Aurtengo neguan ere, nik arapatzen detan bixigurik aundiyena iretzat izango dek.

*Anton.* —Juan dan urtian bezela: neretzako ekari, zuek jan eta arekin edan zenuten sagardua pagatu gabe iges egin... To, to...

*(Basua emanaz. Atraka'k edaten du kondua luñera botiaz).*

Ez nak ni legofeko arantzaliakin fiyutzen.

*Atraka.* —Ez dek legofeko arantzaleik izaten.

*Anton.* —Ez zekiat bada, Joxé Pipax'ek legorian, itxasuan baño lupi geyago arapatzen dizkik.

*Atraka.* —Pipax'ek... nai duelako. Gizarajuak amaika mixerri pasatzen dizkik; lenguan ere geyegi jan eta... gosiak gelditu.

*Anton.* —Bai; ta pagatzerakuan gogoratzia aztu.

*Atraka.* —Gizon ori baño drolerorik ez diat ikusi. Beti beriketan ariko uke, belafiyetatik itza dariyola, ta batea edo bestea, pagatu gabe iges egiteko moduba egiten dik.

*Anton.* —Oyek beliarena egin, eta, gero sagarduen kontuak exkax. Nagusiyari pagatzeko beñere dirurik osatzen ez. Batetik neurtzeko usariyo beriyakin ogei ta bost kargako upelari ogei ta amar eman...

*Atraka.* —Ez dik karga txara euki biar.

*Anton.* —Eta gero, jariyuak eta mermak, eta sagardua sartzia gure kontu, ta upela garbitzia ta sebatzia, ta...

*Atraka.* —Ortara ezkeru, ustu ere obe zenuteke zeok egin.

*Anton.* —Anbat ori ere.

*Atraka.* —Baña, azkenian, zuek negar asko egin arén, erostu-nak berdindu biar izaten dizkik zuen exkasiyak.

*Anton.* —Baita zera ere.

*Atraka.* —Bai, bada; baxo txikiya jafi, ta ura ondo betere ez, botiletan gutxi gora berako neuriyak, eta... beste txi-riyo asko.

*Anton.* —Gaurko egunian pasako dituk neuri kontuetan; emen dituk beti poto lege beriko oyek ikusteh, eta edozein gauzen gatik, zapla, *multa!* Lenguan ere, patña zikiña zegolako bi pesetatzar multa!

*Atraka.* —Orelakuan zelaoriari baxo pare bat eman ezkeru ixilik pasako dik.

*Anton.* —Batzuek, bai; baña, badek galego buru aundi bat... gaxtuo dek zezen napaña baño. Bere parajetik onera

erdi gosiak etori ukan, eta orain puru aundiya ezpañetan duela, markesa diruiyela or zebilek pasiatzen kalietan.

**Atraka.** —Eta oñenbeste zikin al zegon patiñan?

**Anton.** —Bai, zera! Dozen erdien bat legatz buru, sardin ustel batzuek, eta oñelako beste zerbait... zelaoriak berak kraka geyago zeukakan txapelian.

**Atraka.** —Orduan, einendik auñera maiz garbitu biarko dek.

**Anton.** — Bai; beti garbitzen ari nak, baña nik garbitu ala, goiko jendiak zikintzen ziatek.

**Atraka.** —Ayei ere multa eman azi.

**Anton.** —Bai baña; sagardua emendik eramaten ditek, eta asafetu ezkerok ez itutek geyago etofiko.

**Atraka.** —Orduan oyei bai neufiyetan txixkatzia, e? Patiña garbitzia ere, sagardotan kargatuko diyotek?

**Anton.** —Sagardo jabiak bai, kargatzen zizkiak ogei ta bost kargako upelian, ogei ta amar.

**Atraka.** —Ik befiz guri ogei ta amaika, ta partira.

*(Patiñan zerbait erori danen ots aundi bat entzuten da).*

**Anton.** —Zer da ori?

*(Patiñako atera joaten da).*

—Oi! Arkumia ziruiuk.

**Atraka.** —Txerikumia dek.

**Anton.** *(Isekaz).*

—Bai, zera, piper moñuekin.

*(Bañara sartu ta beñero ateratzen da).*

—Katuba dek!

**Atraka.** —Ja! ja! ja! Iyiya asmatu ukan!

**Anton.** —Ez dek orain iñor etofiko ez, mokuaro goxo oñen biñla. Egunero emen zebiltzik alkandora erori zayotela, edo pixoyala, edo...

**Atraka.** —Urdai azpikoren bat.

**Anton.** —E! Gauz oyeok ondo gordetzen dizkitek, bai... alako rik balitz, azkar garbituko nitek patiña.

**Atraka.** —Baita urdai azpikua ere.

**Anton.** —Orain, nik, oyen zikiñak garbitu egin biarko dizkiat.

**Atraka.** —Utzi zak, etofiko dituk...

**Anton.** —Bai; etofiko dek... zelaoria bi pesetan biña.

*(Eñatza artu ta garbitzeru dijua).*

**Atraka.** —Oñela aterako aiz!

- Anton.* —Garbitze ezkerero atera biarko diat. Bitartian egin zak faore sagarduari kobntu artzia.  
(*Patiñara juaten da.*)
- Atraka.* —Ba, bai! Ni emen nagon bitartian ez det sagardorik alpeñik galduko.

## IRUGAÑEN IRUDIA,

### Peño Atraka.

(*Atraka'k barika ondora juan, kadiran exeri, ta baso bat betetzen du.*)

- Atraka.* —Orain ere, aterako naiz bada ni. Au mauka! Txotx befiko sagardo onekin, Anton gizarajuari ziriya sar-tzen diyot.

(*Baso betiari begiratuaz.*)

Sagardo onek bada ez du ain kolore fiña... Neretzat, emenguak ona izateko lasto koloria izan biar du; ala da fiñago ta argiyago... Esan zagun goñi antxeuak ere ez dirala txafak, gorputz geyagokuak dira beintzat. Oña befiz Asturias'kuak, ez izan afen kolorez txit gain gañekuak, eta gañera metxuak, alaz guztiz ez dira txafak ez izan ezkerero pasatuak.

Gaxi puntukuak gustatzen zaizkit... baita goxo antxeoak ere; ta sagardo garatz, txinpartak botatzen dituen ura, azkeneko Amasofañen saldu zan bezelakua... Ura, ura gauza ura, ura zan ura urik gabia.

Esan zagun, besteren bizkar izan ezkerero, edozein edateko pronto nagola; baita eskuetan daukaten oliyo kolore au ere.

(*Edaten du.*)

## LAUGAÑEN IRUDIA.

### Peño Atraka ta Tanti.

(*Tanti zelaorta da, ta totel itzegiten du. Atzeko atetik sartu, ta beti bildurez, kanpora begira ate ondoan gelditzen da.*)

- Tanti.* —Etun on etxetuat.
- Atraka.* —Oi! Tanti, i al itzan? Norbait zala uste nikan.

- Tanti.** —Alatañetan Ataka sadaldua talten. *Tomeltiante* taltu al aiz?
- Atraka.** —Zer edo zer egin biarko diagu ofenbeste alper mantenduko badegu.
- Tanti.** —Pataitalena. Bela tadaldoteyan eta...
- Atraka.** —I nun ago bada?
- Tanti.** —Talto batian etoli nak oldia; tia ekatzak bato bat, eta baniak kolika kolika.
- (Atraka'k basua betetzen du, ta Tanti'ri eskeintzen diyo. Onek artzera egiten du, baña ez du artzen )*
- Atraka.** —Ez zerate gaizki bizi alper txar oyek.
- Tanti.** —I betela. Atzo le teatuan egon oldu bata alte, ta gaul goitian teyetan kalea otea.
- Atraka.** —Teatruan e? Obe dek bai lanera baño ara juan.
- Tanti.** —Aintze uten totia.
- Atraka.** —Gauza politak egingo dizkitek, e?
- Tanti.** —Tiltuan, tiltuan... mutil, an bai edelki: taldiya atea toli ta toli, ta deo tomediantia dañian, eta taldiya toli ta dizonat talto, ta tlapuba tali ta talto, ta deo matila ta talto, deo utaya ta talto, ta...
- Atraka.** —Gero barika...
- (Au guziya presaka).*
- Tanti.** —Ta talto.
- Atraka.** —Gero upela.
- Tanti.** —Ta talto.
- Atraka.** —Mutil!!
- Tanti.** —Ta talto, ta talto, ta talto!!! Ta beti toti batian!!
- Atraka.** —Bejondaikala!
- Tanti.** —Ez zea, teato tikiyan betela: beliketean asi tolti t'el-diyetan, eta itildu bae amabi t'eldiyak alte... ta etitek eiten talto tiki batele... eta onenbete ele.
- (Salto egiñaz).*
- Atraka.** —Eta ayen befiketak entzutiagatik pagatu?
- Tanti.** —Oli, oli!
- Atraka.** —Pagatu gabe kai aldian entzuten dizkiagu (batere ez dakitalarik) ayek ez bezelako befiketalayak.
- Tanti.** —Baña, tiltuan... mutil, ula; ula dauza! sotatik tintilik dizona, ta buluba anken dañian tali, ta deo estubak buluben dañian, eta alen dañian tlipa, ta tlipen dañian abua, ta...



*Atraka.* —Mutil...  
*Tanti.* —Eta deo talto!  
*Atraka.* —A bai! Ortik auñerakua bazekiagu.  
*Tanti.* —Gauz oyek dodolatzian sadaldua elateko dodua editen zat.  
*Atraka.* —To bada, to! Ordu bete ontan emen zioz zai.  
*Tanti.* —Etatzat.  
*(Besua luzatzen du; baña, basua artu baño len, atera begitaztera juaten da, ta lariturik oju egiten du.)*

Eletiolia! Eletiolia! Batiak ni!

*(Atzetik lasterka juaten da.)*

*Atraka.* —Ja! ja! A zer ikara! Ori bai dijuala toli ta toli, talto ta talto. Ja! ja!... Eta orain, zer egingo det nik baso onekin?.. Alpefik galtzia baño, alpefik edatia obe dala esan oi da, ta..... edan egin bearko.

## BOSGAÑEN IRUDIA.

Pelo Atraka, On Jeolimo, gero Anñon.

*Peño edaten asten danian On Jeolimo atzeko atetik sartzen da. Orduan Peño'k, basua gordiaz, patin aldera egiten du.)*

*On Jeolimo*—Jaungoikuak egun on dizutela.

*Atraka.* —(Oi! Sagardo jabia!) Bai, jauna, patiña garbitzera oraintxe juan da; beriala deituko diyot. Anñon!

*On Jeolimo*—Emen al dago Anñon?

*Atraka.* —Bai, jauna, bai; beriala etofiko da. Anñon! Anñon!!

*Anton.* —Nor da?

*(Anñon patiñako atean azaltzen da; uste gabean Atraka jotzen du ta basua botatzen diyo.)*

*Biyak.* —A!

*Anton.* —Katuentzako al ukan?

*(Nagusiya ikusten du)*

—(Oi! Nagusiya!)

*(Patiñara iges egiten du.)*

*Atraka.* Iya ixuri ukan.

*(Anton'en ondotik patiñara juanaz.)*

*On Jeolimo* *(Atetik Anñon'l ojuka.)*

—Anton! Anñon! Nora zuaz?

*Anton.* (Patiñak biurtuaz.)

—Nagusi jauna, barkatu beza, ez nuen ikusten ere.

*On Jeolimo*—Ordu bete ontan emen nago zure zai.

*Anton.* —Eta, ez al du nere andria ikusi?

*On Jeolimo*—Ez.

*Anton.* —Ez da bada ordu laurdenik ere alde egin duela...  
zerera jua da, zereko zerera.....

*On Jeolimo* —A, bai!

*Anton.* —Ez, jauna, ara ez, bestera. Azkena neurtu zan upe-  
leko sagarduen muestra eramatera..... Bestiakina aña  
denbora pasatzen badute, datofen udaberriyan saltzeko  
moduban izango degu, jauna.

*On Jeolimo*—Presa eman biar zayote bada.

*Anton.* Nik uste det, jauna, presa baño, txanpon batzuek ema-  
tia obe izango litzakela.

*On Jeolimo*—Ori ez da ordia ondo egiña.

*Anton.* —Grofi-grofi ere, ez zan ondo egiña bana, or ibiltzen  
zan kalei kale, bere konkofa bizkañian zuela.

*On Jeolimo*—Begira, Anton: guri komeni zaigu lenbailen saltzia,  
ta al dan modurik onenian.

*Anton.* —Bai, jauna, bai. Al dan merkiena.

*On Jeolimo*—E! Neretzako modurik onena, al dan gaixtiyena da.

*Anton.* —Bañan, saltzeko modurik txarrena ere bai.

*On Jeolimo*—Edariya ona izan ezkeru, pixka bat gaixtixiago izan  
aren, azkar saltzen da.

*Anton.* —Nik ez det konprenditzen jauna; ontan andria bai-  
dago oitua.

*On Jeolimo*—Ori gauza eñexa dezu.

*Anton.* —Bai jauna; upel ortatik ogeita amar karga ateratzia  
baño eñexagua.

*On Jeolimo*—Zergatik, ordia?

*Anton.* —Ogeita amar kargik sartu ez dira ta, aterako ez  
diralako, jauna.

*On Jeolimo*—Aterako dira.

*Anton.* —Beofri, bai, aterako litzake alakorik balitz; baño,  
nola nai du ez dan tokitik ateratzia? Sagardua upelian  
jayotzen dala uste al du bada? Upelian geyenaz ere  
*batayatu* egiten da, jauna.

*On Jeolimo*—Bañan, gizona, nola ari zera izketan? Upela neurtu  
beriya bada.

- Anton.* —Oyek zer dakite? Zintakin upela neurtu? Nik, alare, galtzen neufiyak artzen ari zirala uste nuen.
- On Jeolimo*—Neufirik xuxenena orixe da. Orain artekua saltza bat besterik ez da izan; eta ofela zuek kuartotxuak egin dituzute.
- Anton.* — Bai; guretzako beti saltxa, ta jakiya beofentzat.
- On Jeolimo* — Orain gauza askoz ere garbiyagua da.
- Anton.* —Xaltzik ere ez orain!
- On Jeolimo* — Alabaindikan ere, bakoitzak bere kontuak atera biar ditu.
- Anton.* —Nai dituen kontuak atera afen, ez du ortik ogei ta amar kargik aterako.
- On Jeolimo*—Begira, nik ez det ofekin egitekorik. Zuek, saltzen, kontuz aritzen bazerate, gauza ondo aterako da. Iku-siko dezu.
- Anton.* —Nai du ezetz?
- On Jeolimo* — Ez; nik bayetz nai det.
- Anton.* — Ni kontu guztiyakin ariko naiz, eta ikusiko du zer gertatzen dan.
- On Jeolimo*—Ia, bada.

## SEIGAREN IRUDIA.

Anfon, On Jeolimo ta Joxe Pipax.

- Pipax.* (*Atzeko atetik sartuaz*)  
—Atrakatu, ta *fondo* eman biar degu ementxen.
- On Jeolimo*—Emen al zera *alporja*?
- Pipax.* —Ondo ta beoñi, On Jeolimo? Ondo serbitzeko. Ba, jauna, bai.
- On Jeolimo* (*Atzeko ate aldera juanaz.*)  
—Ja! ja! ja! Beti txoro, beti ofela.
- Pipax.* —Bijua ondotxo. Kontuz ibili e? itxaso gaixtua dago-ta.
- On Jeolimo*—Zu kontuz ibili, zu.... *mariatu* gabe.
- Pipax.* —E! Atujia jakiñen gañian dago.
- On Jeolimo*—Ariyo, Anfon. Esanak esan. Ia xuxen ari ta zer ateratzen dan.  
(*On Jeolimo atzetik juaten da.*)

**Anton.** —Ni nere iritzian nago jauna. Bijua ondotxo.

*(Anñon barikaren auffera juan eta exertzen da. Pipax alderatzen zaio.)*

**Pipax.** —Kaxo Anñon: zer gizon modu? Ekatzak baso bat sagardo, lo ez baldin baago.

**Anton.** —Lo niok.

**Pipax.** —Oi! Ez dek gero batere ezagun. Badiruiuk ametsetan abilela, bañan..... lotan, ez.

**Anton.** —Mutil, utzi nazak pakian asafe niok eta.

**Pipax.** —Aixkiratzen lana. Ni ez nak beñere asaretzen; ni beti umore onakin..... Orain ere, abiyadurik batere artu gabe..... edango nizkikek sei baso sagardo bata bestien ondoren.

**Anton.** —Edan obeto egingo dituk, bai, pagatu baño.

**Pipax.** —Begira zak bada. Neri ez zaak gustatzen zofik iñon izaterik, eta ezta..... pagatzerik ere.

**Anton.** —Ori dek!

**Pipax.** —E! Txixixtatu egin nak. Ez nikan ori esan nai.

**Anton.** —Nai ez dekala egiya esan dek.

**Pipax.** —Gizona, gaur baño pobriago izan gaituk bada. Dirua obeto zeukagu agiñeko miña baño. Atxuari atera zizkat zazpi kuarto, txiki bat ardo ta laurdeneko opiña erosirik amaietakua egiteko; ta, beste zazpi miña duro banitu, ez nitek ire inbiriyyik izango.

**Anton.** —Aizak, i: ta sagardua zerekin pagatzeko asmua dek.

**Pipax.** —Gai ofetzaz gero itzegingo diagu.

**Anton.** —Ez diat emango.

**Pipax.** —Ofenbeste ez aiz fiyatzen?

**Anton.** —Ez, ez, ez! Ez diat emango.

*(Pipax'ek alde guzietara begiratzeu du, ta txoko batean makil koxkor bat ikusi, ta bere arekin Anñon'i juaten zaio.)*

**Pipax.** —To makila, ta, koxka egin agiyok, e? ta.....

**Anton.** —Ez nak ari! Makil ontan edo itxasoan egin, bat dek.

*(Pipax'ek makila luñera botatzen du.)*

**Pipax.** —Pagatuko diat bada. Baso baten juan etofiyagatik ofenbeste zalaparta. Ona ago i, nik bezela zazpi miña duro artzeko izateko.

**Anton.** —Norengandik?

**Pipax.** —Gobiernotik.

- Anton.* —Nola?  
*Pipax.* —Sekulan ezer ez diat artu, ta artzeko nagolako.  
*Anton.* —Lenbiziko artzen dekanian etofi adi bada, ta orduan emango diat.  
*Pipax.* —Gizona, pagatuko detala bein esan ezkerro, ez al aiz fiyatzen?  
*Anton.* —Ez nak fiyatzen, ez.  
*(Baso bat sagardo ematen diyo)*  
To. Bañan ez aiz gaur emendik aterako pagatu gabe.  
*Pipax.* *(Basua artuta.)*  
—Aterako gaituk!  
*Anton.* —Zelaoriari deituko ziuat.  
*(Pipax'ek sagardua edan, kondua luñera bota, ta baso utsa Anton'i ematen dio.)*

## ZAZPIGAÑEN IRUDIA.

Anton, Joxe Pipax eta Pelo Atraka.

- Atraka.* *(Eskuiko atetik (pafiñatik) ateriaz.)*  
—Juan al da?  
*Pipax.* *(Pipa pixtuaz.)*  
—Ez; Joxe nak, legoñez.  
*Atraka.* —Legoñez, itxasoz baño obeto izango ditut bai, zuen treñeroko jendiak.  
*Pipax.* —Gure treñeruan bezelako jende lirañik ez dek kostanta ontan guziyan, eta panpafoikeri gutxi atera biar dezute ba-ezpako ařantzale zarpatzu oyek.  
*Atraka.* —Ixilik ago. Zuen artekua izatia lotsatu biar dik eta.  
*Pipax.* I egongo aiz ixilik, i.  
*Atraka.* —Nai badet.  
*Anton.* —Asi al zerate?  
*Pipax.* —Askorik ez amar urte abetan.  
*Anton.* —Bazekiat zer esaten detan.  
*Atraka.* —Onek ez daki ordia zer esaten duen. Asto! Babo!! Lukainka!!!  
*Pipax.* —Ala banitz jango nindukek.  
*Atraka.* —Ez aiz ordia jateko ona.  
*Anton.* —Ez dek bada txarřa edateko.

- Atraka.* —Ofetarako, bai; ta tabernan zalaparta dariyola, bere gezuñezko aziyuak kontatuaz jendia engañatzeko. Itsasuan, itsasuan ezagutzen dek zein dan gizona.
- Pipax.* —Gauz ona izateko afunka geyegi dabilek. Exkoteko kalan abilenian, eta mendabal zakaña ateratzen duenean ez dek oñenbeste agertzen buruba.
- Atraka.* —Ik baño geyago.
- Pipax.* —Ederki eman ere.
- Atraka.* Mutil, pipa besterik ez zaik ikusten ta.
- Pipax.* —Lenguan ere, zer ordutan ziñaten *Xuexteko* kalan?
- Atraka.* —Guk ordubata t'erdian belatu genikan, eta bide erdiraño oker oker, *auuu.....* etofi gindukan. Eta bat batian *kalma!* Txapela bete aize naikua etxera etortzeko, ta, aguantian ler egiten etofi biar!
- Pipax.* —Gu, befiz, zuek baño nekezago irten aren, laja zuek atzian, eta eñiya bixtatu zenuteneako, bi puntetan gindukan.
- Atraka.* —Ala dek, bai! Nik, alare, zuen txalupa afantzako baporía zala uste nikan, ire pipak botatzen zuen kiakin. Oñelako kaldera izan ezkeru, irabazi biar estropada.
- Pipax.* —Eta beste kalan?
- Atraka.* —Zeñetan?
- Pipax.* —*Baztar-kantinan.*
- Anton.* —Kantinan ez, baña, sagardotegiyan alkar topatzen dute abek.
- Atraka.* —Mutil, ez zakala ori aitatu, baztar guziyak zoñez beñiak daukazkit eta.
- Pipax.* —Ire andriak aña ogi ez diagu bada zor, zuek bezin lotsagabiak ez geralako.
- Atraka.* —Ogiya? Ire amak obe zikan ire tokiyan sei librako ogi aundi bat egin balu.
- Pipax.* —Ona bada emen gizon galanta. Iñon kabituko ote da? Etxe-eñenta pagatzeko baño ofetarako obia aiz.
- Atraka.* —Beriketa gutxi gero emen, e! Bestela emango diat begiondoko bat.....
- Pipax.* —Gauza izan biar.
- Anton.* —Ez gero emen okasiyorik jari.
- Atraka.* —Ago ixilik, kintua!
- Pipax.* —I egongo aiz, bobiskum!
- Atraka.* —Katilu, ez besteren katilu!

- Pipax.* —Astua!  
*Atraka.* —Babua!  
*Pipax.* —I bezelakua!  
*Atraka.* — Emango diat!  
(*Eskua altxatuta.*)
- Pipax.* —Artuko dek!  
(*Pipax'ek ere eskua altxatzeu du. Ofela pixka batian al-  
kari asafe begira egongo dira, ta bat batian adizki-  
detzen dira.*)
- Atraka.* —Edan zagus baxo bana.  
(*Barikaren ondora juaten dira ta Anñon'ek bi basuak  
ematen dizkie. Atraka'k artzen ditu, ta lenbizikua  
Pipax'i ematen dio.*)
- Anton.* Beti bezelako azkena aben efomeriyak: itsasuan asi  
ta sagardotegiyan bukatu.
- Atraka.* —Anton: patiña txukun-txukun utziko ukan?
- Anton.* —Bai, zera; lenbiziko bizitzako atsua befiketa dariyola  
asi dek, eta ez diat ezer egin; katua ta beste zikiñak  
bertan gelditu dituk. Inor etortzen bada goxua zio.

## ZORTZIGAREN IRUDIA.

Anñon, Pipax, Atraka, Tanti ta gero Patxi.

(*Atraka ta Pipax'ek sagardua edan ondoren konduak atze-  
ko ate aldera botatzen dituzte. Une onetan Tanti atze-  
ko atetik sartzen da, ta bustitzen dute.*)

- Tanti.* —Bapo! Plei edin natute.  
*Pipax.* —Oi, Tanti! Zer egin ditek?  
*Atraka.* —Txantxetan ukan.  
(*Atraka'k bere baso utsa Anñon'i ematen dio. Ondoren  
Pipax'ena artu ta berdin egiten du.*)
- Pipax.* —*Multa* eman akियok.....  
*Anton.* —Neri?  
*Tanti.* —Bat eo bati bialko. Ez takizute zer pata taitan.  
*Pipax.* —Zer bada?  
*Tanti.* —Badakik, Ataka: len itan naitenian, nola eletiolia  
ikutita, kolika atela naiten, e?  
*Atraka.* —Bai; emengo sagardo jabia.

- Anton.* —Emen izan dek.  
*Tanti.* —Alen idesi ateaten nak, eta bete ikiñan kabua alatañetan.
- Atraka.* —Orduan *talto* egin biar ukan.  
*Tanti.* —Deitu, ta daldetu ziat: “Zer tabiltza tadaldote-gian?” Nik ter esan tatin ez, eta patiña ikusten nitala esan tiuat, eta..... tikiña daola.
- Anton.* —Gezura!  
*Pipax.* —Anon, txautu au.  
*Anton.* —Zikiñago daukak ik mutura.  
*Pipax.* —Ikusi zak.  
*(Tanti patiñara juaten asten da. Anon eta Atraka'k ez dlote uzten.)*
- Atraka.* —Eta, guazen..... kabuak zer esan dik?  
*Tanti.* —Bi peteta multa emateko; ta ona papeleta. Ia oain bi petetak teñek ematen dikian.
- Anton.* —Nik ez peñipin.  
*Tanti.* —Bialko.  
*(Tanti beñiro patiñara juan nairik asten da. Anon eta Atraka'k gelditu arazitzen dute.)*
- Anton.* —Ez txinistu!  
*Atraka.* —Pipax'ek emango dizkik.  
*Pipax.* —Ba bai; ankak erantzi ta beriala emango dizkiat. Zertan nai dituk, uretan edo zilarretan?  
*Tanti.* —Beliketa gutxi. Bat edo batek eman bialko titiak.  
*Pipax.* Mutil, papela *kanbiyatzeko* esaten nikan.  
*Tanti.* —Papelik *tanbiyatu* gabe fumatzen diat nik.  
*Pipax.* *(Pipa erakutsiaz.)*  
—Nik beriz, paperik gabe.
- Tanti.* —Enak ni emendik juango bi petetik bae; ta ba ezpale patiña ikutea niak.  
*(Tanti'k irugaren aldiz patin aldera egiten du. Anon eta Atraka'k geldi arazitzen dute.)*
- Anton.* —Ez dek ikusiko; ik gezura esana ez diat nik kulpik.  
*Atraka.* —Garbiya ziok.  
*Pipax.* —Utzi zayozute.  
*Tanti.* —Utzi bialko!  
*Atraka.* —Zertara juan biar dek, garbiya ziok eta.  
*Tanti.* —Oli etekiak.  
*Anton.* —Zertarako esan diyok bada zikiña dagola?



*Tanti.* — Betela etikan tinixten ta. Tia, tia, ikustea niak.

*Anton.* — Anjela Maria! Ez dek ordia ori kontua.

*Pipax.* — Zer da bada, kantua?

*Atraka.* — Ez, katua.....

*Anton.* (Atrakari abua tapatuaz.)

—Ago ixilik!

*Atraka.* — Ez uala; orain garbitu dik.

*Tanti.* — Ez al diatute utzi nai?

*Anton.* — Garbiya dagola. Ez al dek aitzen?

*Tanti.* — Na ez paetute uti, eon; baña, enak ni juango bi petetik bae.

*Anton.* — Nai duenak emango dizkik, nik ez.

*Atraka.* — Gauz ofetzaz itzegino diagu.

*Pipax.* — Mutil; utzi zak kontu ori..... Naigabia pasatzeko edan zak baso bat; nik iri laguntziagatik beste bat ustuko diat.

*Atraka.* — Guazen.

*Tanti.* — Ekatzak bada bato bat; baña pagatu bialko dek.

*Anton.* — Ez txinixtu.

(*Anñon'ek iru baso banaka Atraka'ri ematen dizkio. Onek artu bezela, lenengo biyak Tanti'ri ematen dizkio; ta onek lenbizikoa Pipax'i.*)

*Pipax.* — Sagardo au oso osasuntsua dek.

*Atraka.* — Sagardo eririk ikusi al dek?

*Pipax.* — *Sainetian* ezagutzen dek.

(*Edaten dute, ta konduak bota ondoren Pipax'ek Tanti'ri, onek Atraka'ri, ta onek Anñon'i, artu bezela basuak ematen dizkie*)

*Anton.* — Onek egin digu ateraldiya.

*Atraka.* — Sañera, sañera egin dik onek.

*Tanti.* — Nik pagatuko itutala uste al dek ba?

*Anton.* — Nork bada?

*Pipax.* — Utzi zayozute tontokeri ofi. Nik emango dizkiat. To...

(*Sakeletan begiratuaz.*)

Ez diat emen. Astegunetako eñopetan utzi dizkiat.

*Atraka.* — Jayetakuak al dituk oyek?

*Pipax.* — Intzentzu egunetakuak.

(*Anñon altxa, ta labak iruditegi aurian biltzen dira*)

*Anton.* — Kanpana bueltakuak jotzen dituztenetakuak?

*Pipax.* — Bai.

(*Patxi mutil koxkor bat da, ta txixtuka ta bonbila txanpon batekin juuz atzeko atian azaltzen da.*)

*Patxi.* —Txopin bat sagardo.

(*Bařika auřian gelditzen da.*)

*Anton.* —Baniak beriala.

*Pipax.* —Tanti, ori dek gizon bortitza etoři aizena.

*Tanti.* —Beti betela.

*Atraka.* —Uste nikan jan biar ginduela.

*Anton.* —Txatxu oni begira.

*Pipax.* —Tira, tira; ez ořetaz geyago itzegin.

*Atraka.* —Ori dek; umore onak bi pesta bařo geyago baliyo dizkik.

*Anton.* —Baita.....

(*Patxi kaniřatik edaten asten da ta Anřon'ek ikusten du*)

—Zer ari aiz?

*Patxi.* (Ařxa ta botila erakutziaz.)

—Txopin bat sagardo.

*Anton.* —Itxogon zak bada pixka bat. Aizyu ori egiten beriz ikusten baat, zatituko at.

*Atraka.* —Bi pesetak oři atera.

*Tanti.* —Oli!

*Pipax.* —Tanti: zuek gizon jakintsuak zeatela ta.....

*Tanti.* —I bařon geyago.

*Atraka.* --Ez dek gaitz.

*Anton.* —Anbat.

*Pipax.* —Orain ere jokatuko diat bada nik, zein dan geyago bertsuetan.

*Atraka.* —Ia?

*Anton.* —Ori, ori.

*Tanti.* —Zuek oldia batalitalak betela tantaten detute.

*Atraka.* —Nola, bada?

*Tanti.* —Neli mutikakin dustaten zat.

*Pipax.* —Zer musika?

*Anton.* —Ĥun-ĥunena?

*Tanti.* —Eliko mutikak tote ituenak. Opela eta! Tinploniak eta!.....

*Pipax.* —E! Bertsolariyak ez ditek kantatzen ořelako doņuetan.

*Tanti.* —Batalitalak dialako.

*Atraka.* —Ia bada, bakoitzak bere doņuan kantatuaz, zein dan geyago.

- Pipax.* —Baita ofetara ere, egingo diat.  
*Tanti.* —Etali txara zekuk oldia..  
*Anton.* —Ofenbesteañoko kantuak egin bear al dituk?  
*Atraka.* —Ofengatik asi zintezteke, bai. Tira, tira, asi.  
*Pipax.* —Ni asiko nak.  
*Anton.* —Geran bada.  
*Pipax.* (*Abestuaz.*)

—Tanti zera zu gizon bikaña  
Bi peseta eskatzeko,  
Baña, izan du Anñon'ek maña  
Zuri gaur ez..... iñondik iñola  
ere patiña zikiña zeguelako  
eskatu dizkatzun diruak  
pagatutzeko.

*Irurak.* (*Pafez.*)

—Ja! ja! ja!

*Anton.* —Non zuen ofek azkeneko efematia!

*Tanti.* —Oli daizki!

*Tanti.* —Ja! ja! Asnas batian kantatzeko naikua egin dik.

*Pipax.* —Orain, Tanti'ren txanda.

*Atraka.* —Ia, nola egiten dekan.

*Tanti.* —Neli ez zaat batalitalak betela dustatzen.

*Anton.* —Dakikan bezela bota zak.

*Pipax.* —Geran, geran, oztu baño len.

*Atraka.* —Ala!

*Tanti.* (*Bi estultxo egin eta pixka bat itxogon ondoren, abestu-  
tzen asten da.*)

—Dure etxian baziot  
Matinabat tatel  
Matinabat titel  
titel, titel, ti-tel, ti-tel.

## BEDERATZIGAREN IRLUDIA.

### Lenguak eta On Jeolimo.

(*On Jeolimo atzeko atean azaltzen da, ta laubak pafez alde  
batian, eta Patxi kaniñatik sagardua edaten arkitzen  
ditu. Bereala Patxi'ri erazotzen diyo.*)

*On Jeolimo* —Zer da modu au! A, likixkeriya ez besterena!

*Tanti.* — Eletiolia!

*Anton.* — Nagusiya!

*Pipax.* — On Jeolimo!

*On Jeolimo.* (*Patxi eskumakilarekin juaz.*)

— Emango diat nik orain!

*Patxi.* (*Bonbiña artu ta negarez igesi.*)

— Ai ama! Ez det geyago egingo!

(*Atzeko atetik juaten da.*)

*Tanti.* (*Pipax'i.*)

— Bi peteta multa.

*Anton.* — Ai! Au tratua!!

(*On Jeolimo An̄on'i alderatzen zayo.*)

*On Jeolimo* — Au al da modua?

*Pipax.* (*Tant'ri.*)

— Neri zer esaten diak?

*Tanti.* (*Batera ta bestera dabiñela uste gabean On Jeolimo'ri.*)

— Bi peteta multa.

*On Jeolimo.* — E?

*Tanti.* — Ai, ez! Barkatu. Oni.

(*An̄on i.*)

Bi peteta multa.

*Anton.* — Ua ortikan.

*Tanti.* (*Atraka'ri.*)

— Bi peteta multa.

*Atraka.* — E?

*Tanti.* — Patiña tikiña. Bi peteta multa.

*On Jeolimo* — Oñela, uste al dezu, konponduko gerala?

*Anton.* — Esango diyot, jauna.....

(*Era onetan gelditzen dira: Atraka la Tanti, etiyelan eskueyan; On Jeolimo ta Anton erdiyan; eta Pipax, bakañik, ezkeñean*)

*Pipax.* — Orain ere, beliarena egin biarko. Kai puntara guazzen bost eñal irabaztera.

(*Atzeko atetik juaten da.*)

*Anton.* (*Pipax dijuata ikustean.*)

— E! Pagatu gabe igesi dijua.

*Tanti.* — Oli bai, oli!

(*Pipax'en ondoren atzetik juaten da.*)

— Bi peteta multa.

*Anton.* Ori ere bai.

(*Atraka'k ere bestiak bezela egiten du, baña atean geldí arazitzen dute.*)

—Ez dek iges egingo, ez!

*On Jeolimo* · Geldí emen!

(*Eskumakíla altxatuaz.*)

*Anton.* —Jaunak: ni ez nijuan iges egitera; nik neria pagatu-ko det. Ez naiz ni orelakua.

## AZKENEKO IRUDIA.

Antõn, Atraka ta On Jeolimo.

(*Irurak aufferatzen dira.*)

*On Jeolimo*

(*Atraka'gatik Antõn't.*)

—Onek zenbat zor dizu?

*Anton.* —Onek.....

*Atraka.* —Nik baso bat.

*Anton.* Besterik, ez?

*On Jeolimo* Gizona, ori al da modua? Danen artian karga erdirren bat edan dute; ayek igesi pagatu gabe, onek, igesi ez egin afen, berdintxu pagatzen du; ta orela kontuak juxtu ateratzia nai dezu?

*Atraka.* —Nik baso bat besterik ez det edan.

*On Jeolimo*—Atoz gero, upela ez dala ogeita ta amar kargakua, ta zintakin ez dala ondo neurtzen..... ta esatera.....

*Anton.* —Zer nai du bada? Gauz abek alegiñak egin afen gertatzen dira.

*On Jeolimo*—Nik ez det oreakin egitekorik, nik sagarduen diru juxtua biar det.

*Anton.* —Gu nola bizitzia nai du?

*On Jeolimo*—Lana eginda.

*Anton.* —Egiten degu, jauna.

*On Jeolimo.*

(*Aldi txiki bat oldozten egon ondoren.*)

—Begira, Anton: ni zutzaz erukitzen naiz. Ezagutzen det, alde batetik, irabazi txikiya dagola, ta bestetik, alegiñak egin afen, *pagatzen* dizutela; bañan, alabaindikan ere, nik neretik ezin emango dizut. Orain, ordia, biyak ondo aterako geran modu bat asmatu det.

*Anton.* —Ia, bada.

*On Jeolimo* - Baso bat txixkatzen dizutenian, baso bat ur bota; bi egiten dizutenian, bi bota, ta ofela, zenbat sagardo txixkatu, ainbeste ur bota. Era onetan zuk ez dezu gaiduko, ta nik ere ez.

*Atraka.* - Guk bai ordia.

*On Jeolimo*—Nik nere baimena ematen dizut.

*Anton.* - Bai; beorrek ematen dit; bañan, naiko al dute jaun oyek?

*On Jeolimo*—Ori.....

*Anton.* (Jendiari.)

—Jaunak; ura botatzeko, beon baimena ematen al ditate?

*Atraka.* —Ez! Ez!! Ez!!! Ez txinixtu!!!

*Anton.* —Nik besterik, ezin egin nezake bada.

(Jendiari.)

Urik nai ez badute  
sagarduarekin  
konpondu litezke  
nagusiyarekin.

*On Jeolimo* - Sagardotxu ontatik emango det anbat pagatutzen badute txikiko..... txalo bat.

*Atraka.* —Asten badira, jaunak, txalo ematera orduan bai egiaz:

*Irurak.* —ATERAKO GERA!

EZKUTAZAPIA JEXTEN DA.

AMAYA.

Negu-aldi ontan indar aundia artu du gure Antzertiak. Ez dago begiratu besterik efi geienetan antolatzen ari diran jaiak. Lenengo mañan Donostia aitatu bear. Bertako Euzko-Etxea, ezpairik gabe, euskel-antzeskizun geiena eratu dituna izango zaigu. Gañera, Iztundea'k, "La Cruz"koak ta beste zenbait elkarteak antzeskizunak burutzen ari dira. Beraz, Donostia txapeldun, ta bego anitz urtez! Gero, Eibar, Tolosa, Bergara, Efenderi, Ordizia, Zarautz ta Andoain alkañen leian dabiltz. Ta beren aretoetan lan egitea naiko ez ba'litz bezela alboko eñietara joan dira. Onela Eibar'koak "Eusko-Gogoa" antzerkia, Durango, Añasate, Deba, Soraluze ta Elgoibar'en antzestu dute. Tolosañak, Abalzizketa, Añibe, Berastegi ta Andoain'en izan ziran; ta Andoaindañak oster a Bilabona'n; Ordizi'koak, Segura, Alegi ta Isatsondo'n; Azkoiti ta Zarauz'ko taldeak batera ta bestera dabiltz.

Ez da au bakafik: Lezo, Berastegi, Legoñeta, Zestoa, Ataun, Otxandio, Lekeitio, Ermu ta abar, Bizkai ta Gipuzkoa'ko eñi ta eñixka geienetan, aurtengo negu ontan euskel-antzeskizunak eratzzen ari dira.

Aitaturiko guziak bizitasun pozgañi bat erakusten digu ta emendik eratzaleñ zorion sutsuenak bidali nai diegu esanaz:

Ekin ta jañai gero ta obeto!

K.

---

### ANTZERKI BEÑIAK.

Lauaxeta'ren "*Gotzone*", Amondarain'en "*Lilia loitan*", Ayanbe'ren "*Euskal-Eguna*", Lekuona'k oraintsu itzulitako "*Sorgiñak*" (iru auek argitaratuak); oietaz gañera beste antzerki beñien otsa ba-datorkigu; Alzaga'k "*Buñuntzi*" atera digu, ekitaldi batean. Parada'tar Ixidor'en "*Abendaren eresiak*" Algorta'n antzestu dute lenangoz. Au ta beste zenbait antzerkien iritzia ezagutu ditzagunean emango degu.

---

### Euskal-Opera Bilbao'ko Añiaga'n.

Beste izpar pozgañia gure adiskideentzako ba-degu. Bilbao'ko Añiaga-Antzokia'n il onen 31'n "*Maitena*" antzestuko dute. Otsaìlaren 2'an beñiz "*Naste-Boñaste*" bilbaotar taldeak; ta azkenik Inñauteri egunez, Otsaìlaren 7'n lenengo aldiz "*Kaitañak*" deritzan eres-antzerkia agertzeakoak dira. Beronen egileak Sertutxa ta Orue jauna izanik. Gurenda osoa opa diegu.

## IÑAUTERITAN TOLOSA'n.

Tolosa'n iru antzerki-jai eder antolatzen ari dira Iñauteritako. Jai auek Goriti-Antzokian ospatuko dira. Igandez: Naste-Boraste Zarautz'ko taldea; astelenitaz: Tolosa'ko Euzko-Gaztedi'ko lagundiak ta asteartietaz Donosti'ko Iztundearen antzezleri bikañak Egilegor ta Beorlegi buru dirala. Ederki tolosafak!

---

## COCTEAU EUSKALDUNA.

Onela deitu genezaioke Sota Aburto Manu idazleari. Antzerki-rako doai berezia du, ta euskeraz idazten ari danezkero ez dezala aztu gure Antzertitxoa. Norbaitek esan digu bere "*La vieja que pasó llorando*" euskeratzen ari dirala "*Negafez igaro zan atsoa*" izenaz. Bai ote? Poztuko giñake.

---

## GERORAKO ASMOAK.

Antzerki egoki ta politenak aukeratzen goaz ufengo zenbakietan argitaratzeko. Ez degu, gaur izenik aitatu nai irakurleen jakin gura kirikatzeagatik. Alaz guztiz zapia zerbait jasota esango dizutegu, laister, zenbaki berezi bat aterako degula emakumezkoai eskenia. Lizardi'tar Xabier'en "*Laño ta izar*" antzerki-ipuia ta oraintsu Paris'en lenengoz antzetzuriko beste antzerkitxo txukun ta xamur bat gaitzat arturik. Baita ere, noizik beinka, Ayanbe'k Euskal-Esnalea'n eman zuan itzaldia: "Euskal-Antzertiaren kon-dairako apur batzuek" azaltzen joango gera.

---

## TORIBIO ALTZAGA.

Antzerkigiñe onen izena nork ez du entzun? Euskal-Antzertiaren aldez berak ainbat eta ainbeste urtean lan egin dunik ez da noski. Argatik, eta poz-pozik, bere antzerti zafenetako bat, asierarako, argitaltzen degu.

---

## ANTZERKI-EGILEAI OARA.

Lanen batzuek argitaratuak dituzten egileai adierazten diegu berak nai izanezkero beren idaztitxoak ANTZERTI'k salgai ipiñiko lituzkela, ortarako bear diran aleak eskuratzen ba-dizki-gute. Saldu ala ordaña biurtuko genieke gure irabaziaz gutxituta. ANTZERTI'k zuen lanak argitaratzea nai ba'dezute bidali "makinaz" idatziak zuzendari jaunak aztertu ditzan.